


maite daigun gure gaztedia



Zaar askok uste izaten dau gazteak beti izan oi dirala bardiñak: jokozaleak, buruariñak, ameszaleak... Eta baita gaurkoak be. Euren ustez, gaurko gaztediaren kezka edo problema askori be ez jake ardura aundirik emon bear, urteen indarrez igaroko dira-ta.

Baiña, eztago zertan esan bearrik egoera ori guztiz bidegabekoa dala. Etorkizuna, iñoiz ezta jokutzen urteen igarotze itsuaren eskuetan itxita. Etorkizun zoriontsu bat gero izateko, lenago etorkizun ori adoretzu EREIN bear dogu, gazteen lur gozoan azi naroa egunero zabalduaz. Orregaitik, ba, iñok ezin dau aztu gaztediaren lantze gogorra; ezin dogu ezelan-be gaztedi ori urteen igarotze orren eskuetan itxi. Gure gaztedia guztion arazoa ta egin-bearra da.

Eta gaztedi orren alde lenago egin bear dogun arazoa, bere problema guztiak maitero aztertutea da; edo bestela ezin izango dogu zuzento azi. Gauza bat izan daigun, ostera, gogoan: norberaren barrua ezagutu ta zuzendu eragiteko, bakotxaren eritxia bestearengandik jatorkuna baiño egokiagoa da. Izan be, gure gazteak milla bider entzun izan dabez euren guraso ta zaarren agotik jatorkezan oar guztiak; baiña oar orreek, euren barrutik be ez datozen bitartean, indar gitxi izaten dabe bizitza obe bat lortuteko. Ikasi daiela, beraz, gazteak euren burua zorroz aztertuten.

Zaar eta gazteen arteko auziak errezago erabakiko litzakez, alkar ulertzeko prest egon bagengoz guztiok, batez be zaarrenok. Ezta ezer irabazten gure neska-mutil gazteen kezka edo baltzune lotsagarrienak edonun eta edonoiz zirikatua. Arean be, eurak eurenak izango dabez, baiña, ori ta guztiz be, bakotxa bera dan moduan onartu bear da. Aleginduten ez bagara, ba, gure gaztedia bera dan legez ikusten eta berak agertuten dabezan kezka guztiekaz maite izaten, ez dogu ezer lortuko.

Derrigorrez izango dira, bai, gizartean zaarrak eta gazteak. Baiña, zergaitik ibilli bear dabe beti alkar zirikatzen? Batu gaitezcan guztiok, zaar eta gazteok, gure gizartea Jaungoikoaren bideetatik gora eroateko.

ANAITASUNA

IX urtea N.º 99
Dep. Legal SS. 1092-1959
Suplemento de la hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
Martia (3) 1963

erein
daigun
gure
etorkizuna

Joan zan illean berbatxu bi esan genduzan Formaziñuatza. Oraingoan, beste bi esango doguz "Jaungoikoak gazteen formaziñuan daukan importantziatzaz".

Gizonaren izakiak aurrerapena eskatuten dau

Gizonak, gizona danezkeroz, bere barruan daroan aurrerapen gogoagaz jokatu dau beti. Gizonak adimen bat dauko; adimen onek aurrerapena eskatuten dau gauz guztietan. Ixtorian ikusten da: gizona zenbat eta aurrerago, ainbat eta jakintsuagoa, leberragoa ta sentsun aundikoagoa izan da. Eta, olanxe izan bear dau.

Baiña, aurrerapen edo progresu onek gauz guztietan joan bear dau, eta ez politikako,

Benetako formaziñuak gizonaren almen guztietara eldu bear dau.

edo gizarteko, edo deportietako problematan bakarrik. Politikako edo gizarteko problematan bakarrik asko aituten dauana ez da gizon osoa edo emakume osoa. Egia, gauz guztietan ezin geinke aitu bardin; baiña, derriorekoa dau gizonak Jaungoikotasunatzaz asko —gizonari jagokon legez beintzat— aurreratutea. Gizona —eta bardin emakumea— ez da animala bat bakarrik; gizona Jaungoikoak **adimez** eta **libertadez** jantzitako animala bat da. Doai oneetatik jatorkoz gizonari bere titulu guztiak. Doai oneek edukatu egin bear dira; eta ez gizarteko edo politikako problematan bakarrik, Jaungoikoaren problemetan be bai. Jaungoikoa ez da fraillientzako eta monjantzako bakarrik; Jaungoikoa danentzat da.

Nai ta nai ez, gazte!...

Nai ta nai ez, Jaungoikoa dozu zure bitzaren ofarri!

Gizona gorputz eta arimaz egia da. Bai gorputza ta bai arima, biak, Jaungoikoak egiañak dira. Gorputza gizon-emakumeen bidez; arima, ostera, Jaungoiko ber berak egiten dau korputzaren ernekerako momentuan. Gorputza gizon-emakumearengandik dator. Arima, Jaungoikoaren eskuetatik; alan erakusten deusku Eliza-katolikuak. Gi-

JAUNGOIKOA ETA *formaziñua*

zona, ba, bai gorputzez eta bai arimaz Jaungoikoarengandik dator. Jaungoikoa da bere asiera ta Jaungoikoa da bere azkena. Nai edo nai ez, Jaungoikoarengandik gatoz. "Es kerrak, Jauna, zuk egiñak garalako!"... Eta, nai ta nai ez, aitu ondo, irakurle, **NAI** edo **NAI EZ** Jaungoikoarengana goaz. Jaungoikoa da gure joera edo elburua. Gure formaziñu guztiaren atalak, erlijia, gizar-tetasuna, deportea, ezkontza, gaztetasuna, zartzaroa, eriotza, dana, Jaungoikoaren eskuetan dago. Jaungoikoa da gure bizitzaren asiera, auspena, azkena! Eta, au, nai ta nai ez! Naiz siñestu, naiz ez siñestu! Sartu ondo zure gogoan: "Jaungoikoa da gure formaziñuaren asiera, auspena, azkena!"



Terra-Nova-ko uretan 100 egun ◆

70 egunetan murmoia ◆

Bi milla lagun ur-aundietara ◆

Frantzi-ko testigu batek diñona ◆

MARIÑELA ERLIJIÑUAREN AURREAN

ERLIJIÑUA ITXASOAN, EZIÑEZKOA?

Auxe diñosku Henri Queffélec-ek, Kanada-ko ur aundietan eun egun egin dabezan gizon orrek: "Gaurko mariñelak eztira, antziera lez, onak eta otoitz zaleak. Gaurkoak, industriaren martxa biotzbakoak kantsa dabezan gizonak dira".

Emen be, askotan entzuten dana bete da: "makiñak, makiña biurtu dau gizona". Egia da. Itxaso arazoetan, makiñak sartu diran ezkeru, mariñelak be eurengandik dagoz kargatuta. Ez domeka, ez astegun, ezta jäirik, industria berari ondo jatorkonean geldituten da.

"Itxasoan eztago domekarik" da mariñel askoren erantzuna. "Ontzia itxasoan dagon artean, ezta komeni lotuta egotea".

Frantziko testigu orrek diñoskun moduan, barruan —beintzat frantzez mariñelen artean— kapellau bat topatea gatxa da. "Nire azkenego ibilkera onek —diño berak— argi ederra emon deust gizon onen erlijiñu bizimodua ikusteko".

Berbetan egin da, konturatuten da bat, arrantzaliekin jakin barik dakiela otoitz egin. Zelan leiteekan ori? Errez, ze gizona, erreka bateko urak berantz doazen lez, berak sentidu be egin barik, Jaungoikoagantantz doa. Au, bizitzaren laburtasuna proba dauan mariñel ezkondu edo gizon egin dakoetan ondo ikusten dan gauza da. Momentu argitsu batzutan entzuten jakee: "Ni ez nago bakarrik. Nonok lagunduten deust". Asko, ibiltan dira gero esandakoari explikaziñu bat topaten eta explikaziñu ori auxe baiño ezta: anima bera bizitzaren egizko sustrai baten atzetik dabilhela.

Henri Queffélec-ek diñoskun, gaurko itxas-gizonak erlijiñu bigunegia dauke, esate baterako, itxasotik errira etortzen direnean, amaren edo andriaren esanari ezetzik ez emotearren beteten dabez aren erlijiñu oiturak. Bestera egingo leukee, Jesukristo euren laguntzat eta euren bizitzako itaunkerari erantzun osoa emongo deustoen gizon bat lez ikusi balebe.

Nire ustez, iñon bada, itxasoan sentiduten da Jaungoikoaren beartasunik aundiena, bertan bai gagozala Beran pentzure...

Gaurko itxas-gizonak, Jaungoikoa zokondoratuten badau, Jaungoikoak ezin dau aztu mariñela, eta beren biarraren estroposuetan, familiaren ezbearretan, itsoteko lez dagonean, beti darraikio, mariñelagandik otoitz bat, erregu bat entzuteko prest.

MARIÑELAK GAUR

Ezkontz-eguna, bizitzako azken eguna.

Frantzia-n gertatua.

Maria Luisa Matgon, ogetalau urteko neskatua, bere ezkontzako egun pozgarrian il da, Forest sur Marqueto-ko alkatearen aurrean "baietza" emon-da gero.

Joan dan urtearen azken egunean ezkondu zan. Gabon-gabako afaria jaten egoala, gabeko amabiak jo ebazan. Jagi zan gizona bere andreari zorionak eta bizi luze bat opa izateko, mosu bat emonaz; baño Mari Luisa, zorionaren zorionagaz edo emozioaren emozioaz, gizonaren besoetan ilda jausi zan.

ANDIK

ETA

EMENDIK

Fraicoise Sagan dala-ta

Bere bigarren ezkontza, ondiño lelengoa baño laburragoa izan da. Iñok ez dau izan ondiño ain labur ezkontz bat.

Joan dan urteko urtarillaren 8-an ezkondu zan bigarren gizonagaz, norteamerikanoa bera. Garagarrillaren 27-an ekarri eban mundura bere alabatxoa; ta abenduaren 12-an ezkontza-austea (diborzioa) eskatu eban.

Bere libruakaz fama audia irabazi dau mundu guztian Frantziko neska onek.

Baiña, Jaungoikoren aurrean be ain fama audia eukiko ete dau?

Zorionsua izango ete da...? Bere bizitzak ezetza emoten deuskula esan bear dogu beintzat...

MEREDITH eta CORINNE

Meredith, USA-ko ikaslea, mañ guda, tiro ta guztizkoa, sortu dau gaitik? Baltza dalako!

Lieja-n, ama batek bere sei il nalera eta Lieja-ko tribunalak amare Lieja-n, tribunal batek sei illabete Zer-gaitik? Amak artutako Talidom

Gizon guztien eskubideak zaintzen eta onartzen ez doguzan artean ezingo dogu "aurrerapena"-rik aitatu



munduari begira



Mississippi-ko errian. Benetako
sarrera sarrera eskatutzeaz. Eta zer-

batxoa il dau. Eroan auzia tribu-
baki dau. Argi esateko, Europa-n,
Corinne, iltzera kondenatu dau.
itzusia jaio dalako!

Jazoera bi bakarrik. Biak bata bestea baiño lo-
garriagoak. Biak aurrerapen ikaragarrien errietan.
Biak "satélite" ta "cohete"-en egunetan. Eta biak
kontat ezagunak.

Alde batetik, aundiak, almentsuak gareala esan
dogu, eta bestetik, atzerapen itxusienean gagoza-
esaten dogu. Zertako mundu barriak, leengo zar
ezi ez badogu?

Meredith, eta Corinne. Eta zenbat "Meredith",
eta zuri, an eta emen, makillatuak eta goserik
Egia; Meredith ez da gizon bat bakarrik: "sím-
bolo" bat da. Eta "símbolo"-a Corinne be. Zenbat
"Corinne": umetxo jaio-barri edo jaio bako, ildako
gerriorean jasotako, Lieja-n edo...

Benetan, Glenn-en "cápsula" alboan gure "Me-
dith" aulduak eta "Corinne"-en gorpu zuriak ipi-
bear doguz. Eta ara gaurko munduaren espillua!

Corinne-ren kontra epaitu dau Lieja-ko tribuna-
l, odoldua izan da Meredith bere kolorea dala ta
dala.

Bear bada, gure egite ta joerak aztertu dai-
zan; bear bada, geure burua errudun autortu dai-
zan. Bear bada, tribunalek ez bakarrik, danok bate-
injustizia kondenatu daigun, eta bear bada, "Co-
rine" ta "Meredith"-een alde bein ta betiko jagi
tezan.

O MUNDUKO DENPOREA;

I

Ikusi neban bein bada
Gabez lotan nengoala,
Egaz agura guztizko zar bat
Usoa legez joiala;
Zer zan nik ez nekiala,
Itandu neutsan ¿nor zara?
Erantzun eustan "beti joan ta
Biurtuten enazana".

II

Joan bai, ta etorri ez,
Askorentzat da uts legez,
Denporak iges egiñagaitik
Damurik artu baperez;
Au etorriarren berez,
Ezen geratu indarrez,
Ezin irabazi bein galdu bazan
Urtuagatik negarrez.

III

O munduko denporea!
Zure balio andia
Bardinduteko ez dirá gauza
Ez zidar, ezta urria.
¿Askoren maitegarria!
¿Enezat bildurgarria!
Zara zorion edo txarrera
Garoazuzan zaldia.

(Arrese Beitia).

BIZKAI

KANTARI

BASERRIA

Baserritar asko estutasun baten aurrean arkituten dira. Baleiteke eurak ez konturaturatea, baiña euren kolko, seme ta baserriaren etorkizuna jokauten dabiltz. Baserriko bizimoduak be asi ta aurrera jo bear dau; ta asikera ta aurrerasun guztiak estutasunak eta problemak dakaze.

Baiña egundo ikusi dozue garirik erneta, lenengo zapaldua ta usteldua izan barik? Kristok esan euskuna da: "Bizitzeko, il". Eta guk esan geinke: Baserri on ta gaurkoa altsatzeko, il". Il orain arte erabilli doguzan arpelezko oitura zarrak; il orain arte eskuetan igurtzi doguzan erraminta igarotakoak.

aurrerapenari

Aurreratu edo ito. Ez dago erdizkorik baserriarentzat. Barriztatu, egunezko erramintakaz jokatu edo zartasunean ugertu ta galdu. Joandako denpora zati aundi batean gure aurrekoak ez dabe semeekaz ondo jokatu. Jaungoikoari eskerrak printzipalena emon deutsee: kristautasun sendoa ta morrosko indartsuak azitzeko, talo esne ederra. Baiña gauza bat aztu jake: baserria aurrerapenagaz lotutea. Ta ez da dirurik euki ez dabelako; tradizionalismuan sartu ta gelditu diralako baiño.

Zer egin bear da, ba, baserriak arkituten diran estutasun onetan?


Lenengo: "Apurtu". Apurkera on baten bearizana dago. Baserritar askok "bizitzeko ez il"-tearen pekatua egiten dabe. Juduta-

rrak Kristogaz egin eben pekatua da; orregaitik kurutzatu eben. Askok baserriagaz be orixe bera egiteko asmoa dauke. Apurtu, ba, erruki barik zartasunean jausitako oiturak. Errukiak, bestela, il egingo gaitu. Ejenplu bat ekarri geinke: baserri askotan lur gitxi euki arren, gauza gogorragoa ta neketsuagoa izan arren, urtero-urtero garia ereiten da. Zergaitik? Aitak eta aitek be orixe egin ebelako. Dirutsuagoa izango leiteke lur oneetan alfalfea erein eta kortan buru pare bat geiago ipintea. Baserriak aurrerantzean be, orain arte izan diran modukoak izan bear dabela usteten dabenak, oker dabiltz.

Ta bigarren: "Ekin". Baserriak, aurrerapenaren zai dagoz. Askori itaundu leitekioe: "Zazpi edo amabi urtean baserriko lurra zainduten zabilte; aurrerapenarik sartu dozuez? Ezetz esan bear askok. Etorkizunari arpegia emon, nekeeri bularra erakutsi, estutasunetan buruagaz jokatu —ezta txapela eroateko bakarrik—, dana doa baserri on bat jasotzera. Izartu barruan zeuon indarraren kontzientzia; uste dogun baiño geiagokoa da. Artu buruan "itzulker" baten itxaropena, biotzean erabakiak amaituteko bear dan indarra, ta naimenean egunero aurrerapenagaitik zeozer egiteko asmoa. Ondo jokatu ezkerro laister doguz bizitz alai bat eroango daben baserri indartsu ederrak.

begira

Maitasuna
eta
alkar-laguntzea
izango dira
andra-gizonen
zoriona



Senar askok uste dabe andreari kasu egi-
tea euren gizontasuna gitxitzea dala. Au,
egiz, ez da zuzena eta egia. (Andreak diñoa-
na gogoan artzeak ez dau esan nai ordu
guztietan arek diñoanari kasu egin bear ja-
kola).

Baliteke andrea milla eta milla gauzetan
dudetan ibiltea, baiña senarraren entendi-
menduaz iñoiz be ez dau dudetan.

Andre batzuek esaten dabe: "Nire Pe-
dro-k, berbetan asten nazen orduko, enten-
didu dauala diñost". Ez, onela ez dozu jo-
katu bear, senarra. Laga zure andreari ber-
baldia amaitzen, andreak berak be biotza
zabaldu nai izaten dau-ta.

Andreak be, maitasun naikoa eukiten dau
eta ez jako gustetan ordu guztietan au ta
bestea senarrari eskatzen ibiltea.

Zeozer bear danean (ez berantzako, etxe-
rako baiño) ez deutso esaten beartasun ori
argi eta garbi senarrari. Indikaziño txiki
batekin entenedua izana gura izaten dau.

Esate baterako, emen jarriko deutsudaz,
senarra, andra-esaera batzuk: "Boda ortara
ez dot joan nai"... diñoanean, esan nai dau:
Ez zara konturatuten, senarra, modatik pa-
satako jantziakin ezin neintekeala joan?

"Maritxu andreari bere senarrak urrez-
ko eskuturreko bat emon deutso urteak be-
tetean"... Esan nai dau: Zuk lore txorta
bat be ez deustazu emoten.

"Zure lagun Andres-en bitartez jakin dot
jornala altza deutsuela"... Esan nai dau:
Zergaitik zure zer-egifengian ez deustazu
berbarik egiten?

"Arpegia zuria daukazu"... Esan nai
dau: Ez zara konturatuten? Zu gaixo za-
goganean urrundik ezagutzen dot, eta, bi-
tartean, zu ez zara konturatzen iñoiz be
nire neketasunagaz.

"Arratsaldetan olako zarata txarrak en-
tzuten dira bidean"... Esan nai dau: Zer-
gaitik bierra amaituta gero zoaz ain arin
etxetik kanpora? Txarto iruditen jatzu biok
alditxo baten paseatea?

"Zure lagunak ikustera joan zaitez"...
Esan nai dau: Gero nigaz berba egingo dozu.

...eta beti onetarik. Pentsa dozue noiz-

SENARRAK

edo-noiz zenbat bider diñotsuen onelako gau-
zak zuen andratxoak eta ez zaree konturatu?

Senar askok uste dabe etxeko problemeen
korapilloak sòltetako naikoak dirala eurek
bakarrik. Ez da egia.

Frigorifiku, garbitzaille, eta abar andreari
ekartea bakarrik ez da naiko familiko pozta-
suna lortzeko. Orreek, bearrezkoak dira,
egia. Baiña orreek bakarrik...

Senar-emazteak daukeezan eziñikusiak
garbitzeko maitasun-olioa da guztiz ona...
Markarik onena orixe... Ez da?

Zuek, baserritarrok, daroazue kristiñautasun garbi, bizi ta legezkoa. (Pio XII'nak)

Baserritarren edo kanpo-laboreetan dabilzanen aunditasuna ta balioa ondo dakie zenbatekoa dan geure Aita Santuak. "Zuek, baserritarrok, daroazue kristiñautasun garbi, bizi ta legezkoa". (Pio XII'nak).

Eta geiago! Eleizeari iñok ezin deikio arpegira jaurti baserritarren buruausteak aaztu dabezenik. Eleizak beti euki dau, ta gaur be bai!, prolema onetan berari jagokon erresponsabilidadearen kontzientzi osoa; baiña... berak bakarrik ezin daike dana konpondu. Derriór bear dauz danon laguntza ta indarra, ta batez be agintariena.

Eleizak, bere aldetik, beti agertu dau bere **justizi-borondatea**; bein baiño sarriagotan programa zabal-sakonak eskeiñi ditu, labrantzea bere medidan konpondu daitean.

Ondo diño Juan XXIII'nak "Mater et Magistra" enziklikan: "Labrantzea bear-bearrekoa da errientzako; batez bere gaur soziedadeak artu daben bidea ikusita. Eta naziño-agintari, jakintsu ta teknikoak makiñari ta traste berriak jarri bear ditue baserritarren eskuetan, lur eta soloak obe-toago jabon daiezan eta gizonaren onerako lur onen indar miragarria zabalduteko".

Ta begiratu zer dirautsen Pio XII'nak Italia-ko baserritarreri: "Ondo dakizue zuek oraiñtsungo aurrerapenen barri; ezagututen dozuez soloak onduteko atara dituen trasteak. Derriorrezkoak dozuez gaur makiña

Jaungoikoaren instrumentuak zaree zuek, baserritar maiteok, eta asko goratuten zaitue lur-labore neketsuak. (Pio XII'nak)

barri oneek. Itxi alde batera bier-era zar eta gauzeztanak, gizonaren indar errimeak itota gero, ondore urria baiño ez dakarre-ta. Gaurko baserritarrak gogoan artu bear da be jakintsuak dirautsena, labrantzea arte ta jakintza bat da-ta".

Eta aurreratxuago zera diñotse: "Baserritarrak, Italia-an beifnepein, naziño osoaren soka sendoa legez dira; eurak emoten deute jenteari janaria ta osasuna".

Benetan be asko maite ditu Eleizak baserritarrak. Orregaitik bierrean aurreratuak nai ditu ikusi.

Eleizaren abotsa

